

Gorroto-delituak Euskadin: nola gaude?

Jon-Mirena Landa Gorostiza

EHUko Giza Eskubide eta Botere
Publikoen Unesco katedraren zuzendaria

EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedraren izenean, 2024ko Gorroto-gertakarien txostena aurkeztu berri dugu ekainaren 18an, Eusko Legebiltzarrean. Bada zortzigarren txostena, Ertzaintzarekin elkarlanean plazaratzen dena, jadanik 2016 eta 2024 urte bitarteko denbora-esparrua aztertuta geratzen delarik.

Gorroto-delituak ez baizik eta gorroto-gertakariak dira aztergai. Alderdi honek badu berebiziko garrantzia. Izan ere, ez baitira zenbatzen, ezta jorratzen, epai irmo baten ondorioz ezarritako delituak, baizik eta hasiera-hasieran poliziak ezagutzen dituen kasuak —gertakariak—, ikertzeari ekingo diotenak eta apika gero Fiskaltzarako edota epaitegi-tarako bidean jarriko dituztenak. Beraz, une honetatik aurrera bi kontzeptuak, gertakaria eta delitua, modu berezian erabil ditzagun.

Txostenaren metodologia erraza da: Ertzaintzak urte oso batean izandako gertakariak bildu eta guri, Katedrari alegia, pasatzen dizkigu guk azter ditzagun. Aurten 236 izan da gertakarien kopurua. Kopuru absolutu hori pixka bat (-%16) jaitsi egin da aurreko urtearekin konparatuta. Horietatik ia bi herenak (%62) gertakari arrazista eta xenofoboak dira, alegia *kanpotarren* kontra-koak. Bigarren talderik erasotuena LGTBIQ+ multzoa dugu, homofobiak eta transfobiak gertakari guztien %23 osatzen dutelarik. Ideologia-rengatik erasoak %7ra ere ez dira iristen, eta genero-arrazoiak direla-eta aurrera eramandako erasoak %4 baino ez dira izan. Hemendik aurrera oso kopuru txikitik erlijioa-rengatik taldea (%2,5), desgaitasuna duten pertsonen taldea (%0,8) edo antisemitismoagatikoa (%0,8) ditugu.

Honaino datu batzuk. Baina balora ditzagun. Orain arte deskribatu den gorroto *talde-mapak* non kokatzen gaitu gure Europako kultur esparruan? Gertakari asko ditugu ala gutxi? Talde erasotuen banaketa antzekoa da aldameneko herrialdeetan? Zelakoak dira gertakari horiek, larri xamarrek? Ondo gaude ala ez?

Gure herrian izan den indarkeria politikoa kontuan hartuta, norbaitek pentsa lezake gorroto-delituetan *txapeldun* izan beharko genukeela. Baina, esan berri dugun bezala, oso portzentaje txikia dugu mota horretako (ideologiarengatik) gertakarien kasuan: %7ra ere ez dira iristen. Espainiako datuekin alderatuta, nabarmen beherago gaude, izan ere Espainiako Barne Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera ideologiazko gorroto-gertakariak %16 ziren: ia bikoitza. Kautela osoz, datu horrek poztu beharko gintuzke: batzuetan entzuten eta zabaltzen diren diagnostiko katastrofisten aurrean ez omen gaudelako ba hain gaizki, eta esan genezake, adierazle honetatik begiratuta, gure elkarbizitzan, gure berradiskidetzan, aurrera goazela.

Europako aldamenetako herrialdeetan (hala nola, Ingalaterra eta Galesen, Eskozian, Ipar Irlandan, Frantzian, Alemanian...) antzeko egitura dute haien gorroto tal-

**Ez dakigu zenbat
kondena dauden:itsu
gaude alderdi horretan.
Fiskaltzak ematen
dituen datuetatik
ondorioztatzen da,
ordea, oso gutxi iristen
direla kondenatuak
izatera**

de-mapari dagokionez: arrazakeria-gertakariak nagusi (%60 eta %70 artean) eta transfobia-homofobia beste laurden bat (%25 inguru) direlarik. Denek dituzte —guk bezala— zailtasunak desgaitasuna duten pertsonen aurkako erasoak argitara ateratzen, hor *zifra beltza* izeneko (ezagutzen ez diren delituen zifra alegia) bereziki sakona delako. Baina taldeak gorabehera, aipatu herrialde europarretan gorroto-gertakarien eta gorroto-delituen mapa askoz larriagoa da gurean baino. Alemanian, esaterako, indarkeria-delituen zenbakiak eta larritasuna ikaragarrikoak dira: hala nola 17.000 gorroto-gertakari baino gehiago zenbatu zituen Poliziak 2023an, haien artean 2.000k baino gehiagok lesio-delitua osatzen dutelarik eta hogeita inguru giza hilketak direlarik. Muin horrek ikaragarriko inpaktua dauka gizarte-kohesioan.

Euskadin, ordea, lesioei dagokien gorroto-gertakarien kopurua %38koa izan arren, gehienak momentuz arinak dira eta seitik ez dira pasatzen larritasun handia erakusten dutenak. Horiei gehitu beharko litzaieke gure artean, eraso larri gisa, beste sei gorrotozko sexu-eraso ere izan ditugula, haietatik bi bortxaketak, eta giza hilketak (saia-kera) bat. Larritasuna, beraz, une honetan kontrolpean dugu, eta hori bada zaindu beharreko alderdia.

Bestetik, gorroto-diskurtsoa, alegia, hitz(huts)en bitartez taldeei erasotzen dieten gorroto-gertakariak %12an egonkorta dira: hauek izango lirake Zigor Kodearen 510 artikuluari legezkiokkeen jarduerak, diskriminaziorako, indarkeriarako edota gorrotoarako deian dautzanak. Pixkana-pixkanaka, ordea, propaganda-gertakariak gutxitzen doaz txostenen historikoan eta gero eta hobeto detektatzen dira *egitatez* aurrera eramaten diren gertakariak (lesioak, kalteak, sexu-erasoak...), hitz hutsen bitartez gauzatzen direnak (mehatxuak, irainak, kalumniak...) baino.

Orain arte estatistika poliziala deskribatu dugu. Horrek, ordea, ez digu delitugintza mota honetako irudi erabat osatua ematen. Estatistika judiziala beharko genuke, jakin ahal izateko poliziek ikertzen dituzten gertakarietatik zenbat eta nola heltzen diren —helduz gero— kondenatuak izatera. Legez 2022tik epaileek estatistika on bat eduki eta argitaratu beharko lukete; baina ez dute. Hortaz, ez dakigu zenbat kondena dauden:itsu gaude alderdi horretan. Fiskaltzak ematen dituen datuetatik ondorioztatzen da, ordea, oso gutxi iristen direla kondenatuak izatera. Eta hor dago gakoa: kondenarik gabe eta horien berri eduki gabe, arriskua dago beste lekuetatik egiten den lana zapuzteko. Eta, are txarrago, arriskua dago biktimak desbabesteko, zigorgabetasuna nagusitzean.

Estatistika poliziala hobetu daitekeen arren, delitugintza honetan fokua epaileengan jarri beharko litzateke, haien trebakuntza gaiotan sustatuz, beste aldi batean genero-indarkeriarekin gertatzen zena gorroto-delituetan gerta ez dadin: alegia, delituak izan badira, baina ez ditugu ikusi nahi. Edo hobeto esanda: epaileek, oro har, badirudi ez dituztela delituok ikusten; izan ere, egon badaude-eta. ●

Zuzenean

JIRA

Maialen Akizu



Gaur amaituko da Euskal Herria Zuzenean. Musika festibal baten gisan definitzen duenak egia esango du; ez dela musika festibal bat dioenak ere ez dio gezurrik.

Aspaldian nahi baino gutxiagotan entzun dut musika zuzenean. Pantailek esaten digute tarteka zuzenean ari garela jasotzen kontzertu bat, partida bat, prentsaurreko bat, eta zalantzan jarri ez arren, jakin badakigu beste gezur-egia bat dela zuzeneko hori. Zuzenekoak presentziaren sinonimo izateari utzi dio, eta halere, oraindik, jantzen ditugu zapatilak, egiten diogu elkarri bultza, izerditzen gara. Kontzertuen zuzenekoetan ez dago erabat argi zer dagoen idatzita eta zer den zuzenekoa: badakizu entseguak egin dituztela, abestien hurrenkera zehaztuta dagoela, zer-noiz esan ere, baina antzematen dituzu erreproduzitzen bainoago musika egiten, ez dakitenera jolasten, eta ederra da.

EHZra joan den lagun batek kanta bat bidali dit zuzenean grabatuta. Opari bat. «Zurekin gogoratu naiz» esateko modu bat da. Ez dit hori idatzi. «Abesti honek zure antza du». Ez daukat argi zer esan nahi zidan, baina nork ez du kanta baten, plater baten, gezur-egia baten antzik? ●

Galernak



BIRA

Itxaro Borda

Ekain bukaera honetan eguraldi zerbitzuek alarma egoerak biderkatu dituzte, batean beroagatik eta bestean, bat-batean, itsaso aldetik altxatzen diren tenpesta erraldoiak iragarritz. Hondar asteko bi arrastiriz jasan ditugun ihausteri, trumoi, ximixta, euri zaparrada eta haize indartsu oldeak, ez errateko oldarrak, ikusgarriak bezain beldurgarriak izan dira. Bidenabar, Ahurti-Bidaxune-Hazparne eskualdean, desmasia asko eragin dituzte harri uharrek. Argazkiak ikusi ditugu: sei zentimetro inguruko birlek esku ahurrak betetzen zituzten...

Gauaren erdian geltokiko bazter hauek zalantza betetzen zituen haize basaren burrunba zurrunaren zarata ozen dabilkit oraino belarri zokoan, bai eta teilatuan banbaka erortzen ziren izotz erronden azantza ere... Lagun batek kontatu zidan, biharamunean, uste izan zuela Bibliako zazpi gaitzen parabolaren ildotik, arrain puskek, kordelean, zerutik lehertzen ari zitzaizkiola. Eta dardaraz urtu zen, aldaketa klimatikoaren ondorioz urtzen doazen Pirinioetako azken glaziarren antzera, datorkigun apokalipsi urrikal gabearen atzamarretatik ihes egiteko modurik ez dukegula marmarikatuz. ●